

KONTROL MOZIOA

DONOSTIA LAGUNKOIEKO 2017KO 45 EKINTZEN BETETZE MAILA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko urtarrilaren 15ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urte hasieran, Udal Gobernuak bilera batera deitu zituen Udalbatza osatzen dugun taldeok, 2017. urtean Udalak Donostia Lagunkoia programa bultzatzeko hartu behar zituen 45 konpromisoen berri emateko.

Bilera horretan eman zitzaigun informazioa Udalaren web orrian ere badago. Web orrialdean jartzen duenaren arabera, Donostia Lagunkoia plan irekia eta dinamikoa da, proiektuak etengabe berraztertzen eta eguneratzen dituen.

Lau dira Donostia Lagunkoiak hartu dituen konpromisoak errotzen dituzten lan ardatzak:

1. Espazio publiko integratzailea eta mugikortasuna: hiria ingurune fisiko integratzaile, irisgarri eta seguruekin osatu nahi duten ekimen guztiak biltzen ditu. Izan ere, ezaugarri hauek inpaktu handia dute zahartzen diren pertsonen bizitza kalitatean, eta tokian tokiko komunitateko partaide aktibo izateko beraien aurretiko jarrera erabakitzen dute. Espazio fisikoak pertsonen arteko topaketa eta lotura erraztean datza, beren autonomia eta partaidetza soziala errazteko.
2. Bizitza osorako etxebizitza: beraien adina alde batera utzita, etxean zahartzea edo “etxean bezala” zahartzea pertsona guztien desio nagusia da. Ardatz honek nahi hau ahalbidetzeko formula batzuk biltzen ditu.
3. Zaintzen duen komunitate bat: laguntza Komunitario sarea Donostia Lagunkoia planaren proiektu traktoretariko bat da. Hala, gertutasun eta eguneroko bizitzaren inguruneetan onarpenerako elkarlan harremanak, eta adineko pertsonentzat laguntza eta zaintza artikulatu nahi ditu. Batez ere pertsona ahulenentzat.
4. Bizitza ziklo berri baterako transizioa eta adinaren kudeaketa: alde batetik, azken ardatz honek pertsonak beraien zahartze prozesuari buruz kontziente izan daitezen eta hau nola bizi nahi duten erabakitzen lagunduko dieten ekintzak biltzen ditu. Bestetik, erakundeetan langilean zahartze prozesuak eragiten dituen erronkak azpimarratzen ditu, eta belaunaldien arteko erreleboa, ezagupen transferentzia edo belaunaldi ezberdinak biltzen dituen langileriaren kudeaketa bezalako gaiak aztertze beharra azpimarratzen du.

Oinarrizko lau ardatzak abiapuntu gisa hartuta, urteroko ekintza planak eraikitzen dira. Plan hauek urte bateko epean egingo diren ekimen zehatzak biltzen dituzte.

2017. urteko ekintza planak 45 ekimen edo konpromiso biltzen ditu. Horien artean honako hauek daude:

- Zabor-erakundeentzietan buruzko azterlana adineko pertsonekin kontrastatzea.
- Txomineneko komunitate-ekipamenduko lursailerako proiektua idazteko programa partaidetzaren bidez definitzea.
- Adinekoak bizi diren etxebizitzak dituzten eraikinetan igogailuak jartzea sustatzeko plan bat egitea.
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arloan eta babesik gabe dauden adingabekoen arloan lanean denbora daramaten taldeen antzeko lantalde bat sortu eta sustatzea, hainbat gaitan trebatzeko: ahultasun-egoerak eta tratu desagokiak hautemateko adierazleak, kasuak gainbegiratzea eta jarduera-protokoloak.
- Eta abar.

Agintaldi hau hasi zenetik bi urte eta erdi joan dira dagoeneko, eta balantzea egiteko unea den honetan, argi dago hartutako 45 konpromisoetako asko ez direla burutu. Esate baterako, alkateak berak batzordean adierazi zigun bezala, soilik 15 neurri bete dira. Beste 30 falta dira, beraz.

Aldi berean, alkateak adierazi zuen memoria osoaren aurkezpena egingo zutela talde eragilearen aurrean eta Udalbatza osatzen dugun taldeen aurrean.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hartu beharreko neurriak har ditzala Donostia Lagunkoiaren harira hartutako konpromiso guztiak betetzeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostia Lagunkoiaren 2017ko ekintza planaren ebaluazioa talde eragilearekin batera egin dezala.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2018ko ekintza plana diseinatzerakoan talde eragilearen eta Udalbatza osatzen dugun taldeon ekarpenak kontuan hartzeko mekanismoak martxan jar ditzala.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 19an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia